

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

DEBAKO UDALA

Udaltzain agenteen lan poltsa osatzeko deialdiaren oinarriak.

1. Deialdiaren xedea eta arau orokorrak.

Deialdi honen xede da udaltzain-agenteen lan-poltsa osatzea, opor garaietan –udan batez ere– edo egoera jakinetan agindutako zereginak betetzeko bitarteko agenteak izendatu behar direnean plantillan izaten diren behin-behineko edo behin betiko hutsuneak betetzeko.

Oposizio/lehiaketako ariketa guztiak gainditzen dituzten izangaiek lan-poltsa bat osatzeko dute eta lan-poltsa horretan egoteak eskubidea emango die, sor daitezkeen aldi baterako beharrak betetzeko deituak izateko, hautaketa prozesuan lortutako puntuazioaren hurrenkeran.

Lanaldia, lan-egutegia, ordutegia eta dedikazio-erregimena Udalak ezarriko ditu, zerbitzuaren beharrei erantzunez.

2. Izangaien betebeharrak.

Aukeraketa-prozesu honetan parte hartzeko, honako baldintzak bete beharko dira:

- a) Espainiar nazionalitatea izatea.
- b) Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean 18 urte beteta edukitzea.
- c) Gizonek, gutxienez, 1,65 m neurtzea, eta emakumeek 1,60 m.
- d) Titulazioa: Eskola Graduatua, Bigarren Hezkuntzako Graduatua, Lanbide Heziketako 1. Graduko titulua edo baliokidea, edo maila handiagoko beste edozein titulu.
- e) B motako gidabaimena edo baliokidea edukitzea eskabideak aurkezteko epea amaitzean.
- f) Euskara: 2. hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea egiaztatzea. Maila hori honako bi modutan egiaztatu ahal izango da:
 - Eskabidearekin batera, 2. hizkuntza-eskakizuna gainditu duela frogatzen duen Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen ziurtagiria aurkeztuta edo Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeak den azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera, baliokideak diren beste ziurtagiri batzuk (*Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 2010-11-15) aurkeztuta.
 - Hautapen-prozesuan zehar *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari*ko deialdi bateratuan 2. hizkuntza-eskakizunaren azterketa gainditzea. Proba hori gainditu behar duten hautagaiak eskaerarekin batera azaldu behar dute, EHAAK hizkuntza-eskakizunen erregistroko informazioa begiratu eta Debako Udalari emateko baimena ematen dutela.
- g) otsailaren 17ko 36/2004 Dekretuaren eranskinean aipatzen den medikuntzako bazterketen koadroan sarturik ez egotea; Euskal Herriko Poliziaren hautespen- eta prestakuntza-

AYUNTAMIENTO DE DEBA

Bases de la convocatoria para la creación de una bolsa de trabajo de agentes de policía local.

1. Objeto de la convocatoria y normas generales.

El objeto de la presente convocatoria es la creación de una bolsa de trabajo de agentes de policía local que se precisen, bien en los periodos vacacionales, generalmente en época estival, para cubrir plazas de plantilla accidental o definitivamente vacantes, o ante determinadas circunstancias, que requieran del nombramiento de Agentes interinos para llevar a cabo las funciones encomendadas.

Los/as aspirantes que superen todos los ejercicios del concurso-oposición formarán parte de una bolsa de trabajo que les dará derecho, en el orden de puntuación obtenido en el proceso selectivo, a ser llamados/as para cubrir las necesidades de carácter temporal que surjan.

La jornada de trabajo, el calendario laboral, el horario y el régimen de dedicación, serán fijados por el Ayuntamiento, atendiendo a las necesidades del servicio.

2. Requisitos de los/as aspirantes.

Para tomar parte en el proceso selectivo, será necesario reunir los siguientes requisitos:

- a) Tener la nacionalidad española.
- b) Tener 18 años de edad referida al día en que finalice el plazo de presentación de instancias.
- c) Tener una estatura mínima de 1,65 m los hombres y 1,60 m las mujeres.
- d) Titulación: Título de Graduado/a Escolar, Graduado/a en Educación Secundaria, Formación Profesional 1er grado o equivalente, o cualquier otro de nivel superior.
- e) Estar en posesión del permiso de conducir clase B o equivalente, al término del plazo de presentación de instancias.
- f) Euskera: Acreditación del perfil lingüístico 2 o equivalente. Este extremo podrá acreditarse por cualquiera de estos dos medios:
 - Presentación, junto con la instancia, del certificado del Instituto Vasco de Administración Pública de haber acreditado el perfil lingüístico 2, u otros certificados equivalentes de conformidad con el Decreto 297/2010, de 9 de noviembre, de validación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera, y equiparación con los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas (*Boletín Oficial del País Vasco* 15-11-2010).
 - Superar en el curso del proceso selectivo las pruebas de acreditación del perfil lingüístico 2 en convocatoria unificada del IVAP. Los/as candidatos/as que tengan que realizar esta prueba deberán expresar junto con la instancia la autorización expresa para que el IVAP consulte la información del registro de perfiles lingüísticos y se la comunique al Ayuntamiento de Deba.
- g) No estar incurso/a en el cuadro de exclusiones médicas que figura en el anexo del Decreto 36/2004, de 17 de febrero, de segunda modificación del decreto por el que se aprueba el

erregelamendua onartzen duen Dekretuaren bigarren aldaketa aipatzen den horretan, hain zuzen ere. Hori dagokion mediku-azterketaren bidez egiaztatu beharko da bere garaian.

h) Dolozko delituagatik kondenatua ez izana, Herri Administrazioaren zerbitzuetik baztertua ez izana, eta funtzio publikoak betetzeko debekurik ez izatea. Hala ere, birgaitzearen onura aplikatu ahal izango da, zigor- eta administrazio-arauei jarraiki, baldin eta izangaiak dagokion agiri ofizialaren bidez egiaztatzen badu egoera hori.

i) Hutsegite larria edo oso larria egin izanagatik Euskal Herriko Polizia Kidegoren batean sartzeko hautespen-prozesutik baztertutakoa ez izatea, non eta baztertea aitortu zenetik zigorraren iraungipen-epea ez den igaro.

j) Postuaren berezko zereginak betetzea eragozten duen gaixotasunik, akats fisikorik edo akats psikikorik ez edukitzea.

k) Indarrean dagoen araudiaren arabera, ezgaitasun edo bateraezintasunezko lege-kausa batean nahastuta ez egotea; edozein kasutan, indarrean dagoen araudiak hautatzeko ematen duen eskubidea gordeko da.

3. *Eskaerak.*

Eskaerak aurkezteko epea, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN deialdia argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita 10 egun naturaleko epean bukatuko da.

Eskaerak Udaleko leihatila bakarrean aurkeztu beharko dira eta bat etorriko dira bertan jaso ahal den eta oinarri hauei II. Eranskin gisa gehitzen zaien eredu ofizial normalizatuarekin.

Oinarrietan eskatutako baldintza guztiak egiaztatzeko agiriak eta lehiaketa-faserako beharrezko titulu eta ziurtagiriak eskaerarekin batera entregatuko dira.

Bestalde, Correos-eko bulegoetan ere aurkez daitezke eskaerak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Kasu horretan, Udaleko alkate-lehendakariaren izenean jarriko dira, gutun-azal ireki batean, Correos-eko funtzionarioak data eta zigilua jar ditzan, aurkezpen-epearen barruan daudela ziurtatzeko. Correos-en emandako zigiluan agertzen den eguna izango da, kasu horietan, Udaleko erregistroarako sarrera eguna.

4. *Izangaiak onartzea.*

Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta gero, alkate-lehendakariak onartu eta baztertu diren izangaien behin-behineko zerrenda onartuko du, eta baztertu diren izangaien kasuan, baztertzeko arrazoiak adieraziko ditu. Behin-behineko zerrendak Udaleko Web orrian eta Udalaren iragarki-oholean argitaratuko dira, eta erreklamazioak aurkezteko edo akatsak zuzentzeko 3 egun balioduneko epea utziko da, argitalpena egin eta biharamunetik hasita.

Behin-behineko zerrendarekin batera, oposizio-faseko lehen ariketa edo ariketa guztiak egiteko data, ordua eta lekua jakinaraziko dira. Kalifikazio Epaimahaiak Udaleko web orrian eta iragarki-oholean jarriko ditu ondorengo ariketak egiteko data, ordua eta lekua, horrela badagokio, edo egokitatz jotzen duen beste edozein bitarteko erabiliiko du horretarako.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtu dela ulertuko da. Erreklamaziorik egonez gero, Udalak ebazpen bidez onartu edo baztertuko ditu, eta ondoren, behin betiko zerrenda onartuko du, lehen adierazitako moduan.

Reglamento de selección y formación de la Policía del País Vasco. Este extremo habrá de acreditarse en su momento mediante el oportuno reconocimiento médico.

h) No haber sido condenado/a por delito doloso, ni separado/a del servicio de la Administración Pública ni hallarse inhabilitado/a para el ejercicio de funciones públicas. Será aplicable, no obstante, el beneficio de la rehabilitación, de acuerdo con las normas penales y administrativas, siempre que aquella se acredite mediante el correspondiente documento oficial por parte del/la aspirante.

i) No haber sido excluido/a de un proceso selectivo para el ingreso en algún cuerpo de Policía del País Vasco por la comisión de una falta grave o muy grave, salvo que hubiera transcurrido un período de tiempo equivalente a su plazo de prescripción, contado desde la fecha de declaración de la exclusión.

j) No padecer enfermedad ni defecto físico ni psíquico que impida el normal desempeño de las funciones propias del puesto.

k) No estar incurso/a en causa legal de incapacidad o incompatibilidad según la normativa vigente, dejando a salvo el derecho de opción que ésta le otorgue.

3. *Solicitudes.*

El plazo para la presentación de las instancias finaliza 10 días naturales después del día siguiente del anuncio de la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Las instancias deberán presentarse en la ventanilla única del Ayuntamiento, y se ajustarán al modelo oficial y normalizado que será facilitado en la ventanilla única y que se adjunta a las presentes bases como Anexo II.

La instancia se presentará junto con toda la documentación acreditativa de los requisitos exigidos en las bases, así como los títulos y certificados para la fase de concurso.

Las solicitudes podrán ser también presentadas en las Oficinas de Correos, de acuerdo con lo previsto en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común de 26 de noviembre de 1992, y se dirigirán al Alcalde-Presidente del Ayuntamiento en sobre abierto para ser fechadas y selladas por el/la funcionario/a de Correos para su certificación dentro del plazo de presentación. Sólo en éste caso se entenderá que las mismas han tenido entrada en el registro del Ayuntamiento en la fecha en que fueron entregadas en la Oficina de Correos.

4. *Admisión de aspirantes.*

Finalizado el plazo de presentación de instancias, el Alcalde-Presidente de la Corporación aprobará la relación provisional de aspirantes admitidos/as y excluidos/as, con indicación en su caso de las causas de exclusión, que se harán públicas en la página web y serán expuestas en el Tablón de anuncios del Ayuntamiento, concediéndose un plazo de 3 días hábiles, contados a partir del día siguiente al de la publicación, para presentar reclamaciones o subsanar errores.

Juntamente con la lista provisional, se dará a conocer la fecha, hora y lugar de realización del primer ejercicio, o de todos los ejercicios de las pruebas de selección. La fecha, hora y lugar de realización de los ejercicios siguientes, en su caso, los dará a conocer el Tribunal Calificador anunciándolo en la página web y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento o por cualquier otro medio que estime conveniente.

La relación provisional se entenderá automáticamente elevada a definitiva si no se presentaran reclamaciones. En caso de que hubiera reclamaciones, éstas serán admitidas o desestimadas por una nueva resolución del Ayuntamiento que aprobará la lista definitiva y que será publicada, asimismo, de la forma indicada anteriormente.

Ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, eta horretarako, bi hilabeteko epea utziko da, onartu diren eta baztertu diren izangaien zerrenda argitaratu eta biharamunetik hasita, betiere egokitzat jotzen den beste edozein errekurtso aurkezteko aukerari kalterik egin gabe. Hilabeteko epean berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, baina, edozein kasutan, argitalpenaren aurretik egin behar da.

Behin behineko zerrendetatik at geratu eta kontrako erreklamazioa aurkeztu duten pertsonak probak egitera aurkeztu ahal izango dira, kautela-izaerarekin, proben egunerako erreklamazioari erantzunik eman ez bazaio. Bestalde, behin betiko zerrendetatik at geratu diren pertsonak probak egitera aurkeztu ahal izango dira, kautela-izaerarekin, betiere kanporatzearen aurkako errekurtsoa aurkeztu dutela ziurtatzen badute, eta dagokion egunerako errekurtsoari erantzunik eman ez bazaio.

5. Kalifikazio Epaimahaia.

Kide hauek osatuko dute Kalifikazio Epaimahaia:

Lehendakaria:

– Zerbitzuaren arduraduna.

Mahaikideak:

– Zerbitzuko bi langile.

– Debako Udaleko administrari-laguntzaile edo administrari bat.

– EHAAREN ordezkari bat (euskara probarako).

Idazkaria:

– Udaleko idazkaria. Ahots eta botoarekin.

Edonola ere, hautaketa-prozesuaren proba batzuetan edo guztietan aholkulariak erabili ahal izango ditu Epaimahaiak, eta haien espezialitate teknikoetan bakarrik jardun ahal izango dute, Euskal Funtzio Publikoaren 6/89 Legearen 31.3. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Epaimahaiko kide guztiek hitza eta botoa izango dute. Epaimahaiaren erabakiak bertan daudenen botoen gehiengoarekin hartuko dira. Berdinketa egongo balitz, mahaiburu diharduenaren botoak erabakiko du.

Administrazio-prozedura erkidearen araudian aurreikusten diren egoerak gertatzen badira, epaimahaiko kideek ez dute parte hartuko, eta izendatu zituen organoari jakinaraziko diote; izangaiek ere errekusazioa sustatu ahal izango dute.

Epaimahaiak Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen, 22. artikulutik 27.era bitartean adierazten diren arauen arabera jardungo du. Lehendakariak aginduta idazkariak deialdia egingo du eta kide guztiak bilduko dira hautapen-probak hasi aurretik denbora nahikoarekin; epaimahaia osatzeko kideen erdiak baino gehiagok bertaratu beharko dute, eta edozein kasutan, lehendakariak eta idazkariak, edo horien ordezkariak, bertaratu beharko dute.

Epaimahaiak argituko ditu oinarri hauek aplikatzerakoan sor daitezkeen zalantzak eta deialdia ondo garatzeko beharrezkoak diren akordioak hartuko ditu. Halaber, oinarrietan aurreikusten ez diren kasuetan jarraitu behar diren irizpideak ezarriko ditu.

6. Hautapen-prozesuari buruzko arauak.

Kalifikazio Epaimahaiak azterketak egiteko oinarri hauetan aurreikusitako hurrenkera alda dezake eta egun berean azterketa bat baino gehiago egiteko erabakia har dezake. Horrelakoetan, aurreko azterketa gaingitu duten pertsonen azterketak bakarrik ebaluatuko dira.

Contra dicha resolución podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo, en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al de la publicación de la lista de admitidos y excluidos, sin perjuicio de que se pueda interponer cualquier otro recurso que se estime procedente. Con carácter previo y potestativamente se podrá interponer recurso de reposición en el plazo de un mes.

Las personas excluidas en las listas provisionales, que hubieran presentado reclamación en plazo contra las mismas, podrán presentarse con carácter cautelar a la realización de las pruebas, si para dicha fecha no se ha resuelto la reclamación planteada. Asimismo, las personas excluidas en las listas definitivas, podrán presentarse con carácter cautelar a la realización de las pruebas, siempre y cuando acrediten haber presentado el oportuno recurso contra la exclusión, y si para dicha fecha no se ha resuelto el mismo.

5. Tribunal Calificador.

El Tribunal Calificador estará constituido de la siguiente forma:

Presidente/a:

– El/la responsable del servicio.

Vocales:

– Dos trabajadores del servicio.

– Un/a auxiliar administrativo/a o administrativo/a del Ayuntamiento de Deba.

– Un/una representante del IVAP (a efectos de la prueba de euskara).

Secretario/a:

– La secretaria del Ayuntamiento. Con voz y voto.

En todo caso, el Tribunal podrá disponer la incorporación de asesores a sus trabajos, para todas o algunas de las pruebas que conste el proceso selectivo, que se limitarán al ejercicio de sus especialidades técnicas, a tenor de lo establecido en el artículo 31.3 de la Ley 6/89, de la Función Pública Vasca.

Todos los miembros del Tribunal tendrán voz y voto. Las decisiones del Tribunal se adoptarán por mayoría de los votos presentes, resolviendo, en caso de empate, el voto de quien actúe como Presidente/a.

Quienes sean miembros del Tribunal deberán abstenerse de intervenir, notificándolo al órgano que realizó su nombramiento, y los/as aspirantes podrán promover su recusación, cuando concorra alguna de las circunstancias previstas en la normativa reguladora del procedimiento administrativo común.

El Tribunal ajustará su actuación a las reglas determinadas en los artículos 22 a 27 de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre LRJ-PAC. Se reunirá, previa convocatoria de su secretario/a, por orden de su presidente/a, con antelación suficiente al inicio de las pruebas selectivas, siendo necesaria para su válida constitución la asistencia de más de la mitad de sus miembros, debiendo estar presentes, en todo caso, el/la Presidente/a y el/la Secretario/a, o, en su caso de quienes les sustituyan.

El Tribunal resolverá todas las dudas que pudieran surgir en la aplicación de estas bases, y tomará los acuerdos necesarios para el buen orden en el desarrollo de la convocatoria, estableciendo los criterios que deban adoptarse en relación con los supuestos no previstos en ellas.

6. Normas sobre el proceso selectivo.

El Tribunal Calificador podrá disponer la celebración de las pruebas en orden diferente al previsto en estas bases, así como la celebración de varias pruebas el mismo día. En este caso, sólo se entrará a evaluar cada prueba, respecto de las personas que hayan superado la anterior.

Epaimahaiak deialdia egin eta ariketak egiteko adierazitako lekuan, datan eta orduan agertzen ez diren izangaiak, ezinbestean izanda ere, hautapen-prozesutik at geratuko dira behin betiko.

Izangaiek beren NANA (edo agiri baliokidea, atzerritarren kasuan), eramango dute probetara, bakoitzak bere nortasuna ziurtatzeko. Epaimahaiak edozein unetan eska dakieke agiria aurkezteko.

Ariketa baztertzaile bakoitzaren amaieran, epaimahaiak akordio bat hartuko du eta iragarki-oholean eta udaleko web gunean argitaratuko da azterketa gainditu duten izangaien zerrenda.

7. Oposizioa.

Ondoren aipatzen diren ariketak egingo dira oposizio-fasean, Epaimahaiak adierazitako hurrenkeran:

– Lehen ariketa: Azterketa fisikoak. Derrigorrezkoa eta baztertzailea.

Honako ariketa hauek egingo dira:

Los/as aspirantes que no comparezcan al llamamiento del Tribunal para el desarrollo de los ejercicios en el lugar, fecha y hora que se señale, incluso por razones de fuerza mayor, serán definitivamente excluidos/as del procedimiento selectivo.

Los/as aspirantes a efectos de acreditación de su identidad, acudirán a las pruebas provistos/as del D.N.I. o documento equivalente en el caso de personas extranjeras. Su presentación podrá ser exigida por el Tribunal en cualquier momento.

Al finalizar cada ejercicio de carácter eliminatorio, mediante acuerdo del Tribunal, se publicará en el tablón de anuncios y en la web del ayuntamiento la lista de aspirantes que lo hubieran superado.

7. Oposición.

En la fase de oposición se realizarán los ejercicios que se detallan a continuación, en el orden que establezca el Tribunal:

– Primer ejercicio: Pruebas físicas. Obligatorio y eliminatorio.

Consistirá en la realización de los siguientes ejercicios:

60 m GIZONAK/HOMBRES		60 m EMAKUMEAK/MUJERES	
Menos de 8,70" baino gutxiago	5	Menos de 9,50" baino gutxiago	5
Entre 8,70 y 9,70" artean	4	Entre 9,50 y 10,50" artean	4
Entre 9,70 y 10,70" artean	3	Entre 10,50 y 11,50" artean	3
Entre 10,70 y 11,70" artean	2	Entre 11,50 y 12,50" artean	2
Entre 11,70 y 12,70" artean	1	Entre 12,50 y 13,50" artean	1
800 metro GIZONAK/HOMBRES		800 metro EMAKUMEAK/MUJERES	
Menos de 3,00 baino gutxiago	5	Menos de 3,15 baino gutxiago	5
Entre 3,00 y 3,13 artean	4	Entre 3,15 y 3,28 artean	4
Entre 3,13 y 3,26 artean	3	Entre 3,28 y 3,41 artean	3
Entre 3,26 y 3,39 artean	2	Entre 3,41 y 3,54 artean	2
Entre 3,39 y 3,52 artean	1	Entre 3,54 y 4,07 artean	1

Gehienez 10 puntu emango dira. Gainditzeko gutxienez 5 puntu lortu beharko dira.

– Bigarren ariketa: Azterketa teorikoa. Derrigorrezkoa eta baztertzailea.

Udalerrriaren inguruko ezagutzari buruzko azterketa egingo da: Kaleak, mugikortasuna, interesguneak, eraikin garrantzitsuak, erakunde publikoak, komunikabideak eta abar. Epaimahaiak irizten duen gehienezko denboran.

Gehienez 10 puntu emango dira. Gainditzeko gutxienez 5 puntu lortu beharko dira.

– Hirugarren ariketa: Euskara proba Derrigorrezkoa eta baztertzailea.

Euskara-gaitasuna egiaztatzea. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari*ko deialdi bateratuan 2. hizkuntza-eskakizuna akreditatzeko azterketak egingo dira.

Proba hau Gai/Ez Gai kalifikatuko da.

Ariketa hau egitetik salbuetsita egongo dira hizkuntza-eskakizuna agiri hauetakoren batekin egiaztatzen duten izangaiak: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ziurtagiria (2. hizkuntza-eskakizuna gainditu dela egiaztatzen duena); edo horren parekidea, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera (euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi

Se valorará sobre un máximo de 10 puntos. Debiéndose obtener un mínimo de 5 puntos para superarlo.

– Segundo ejercicio: Prueba teórica. Obligatoria y eliminatoria.

Consistirá en la realización de una prueba sobre conocimiento del municipio: Calles, movilidad, puntos de interés, edificios de importancia, organismos públicos, vías de comunicación etc, en el tiempo máximo que estime el tribunal.

Se valorará sobre un máximo de 10 puntos. Debiéndose obtener un mínimo de 5 puntos para superarlo.

– Tercer ejercicio: Prueba de euskara. Obligatoria y eliminatoria.

Acreditación de conocimientos de euskera. Consistirá en la realización de las pruebas para acreditar el perfil lingüístico 2 en convocatoria unificada del IVAP.

Este ejercicio será calificado con Apto/No Apto.

Quedarán exentos de la práctica de este ejercicio, aquellos aspirantes que acrediten el perfil lingüístico, mediante la presentación del correspondiente certificado del Instituto Vasco de Administración Pública de haber acreditado el perfil lingüístico 2 u otros certificados equivalentes de conformidad con el Decreto 297/2010, de 9 de noviembre, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera, y equipara-

Marko Bateratuko mailarekin parekatzen dituen). Akreditatu ahal da euskara probaren egunera arte.

– Laugarren ariketa: Azterketa teorikoa. Derrigorrezkoa eta baztertzaillea.

Gehienez 30 minututan, I. eranskinean adierazten diren Udal Ordenantzen ezagutzari buruzko azterketa egingo da.

Gehienez 10 puntu emango dira. Gainditzeko gutxienez 5 puntu lortu beharko dira.

– Bosgarren ariketa: Azterketa teorikoa. Derrigorrezkoa eta baztertzaillea.

Gehienez 30 minututan, I. eranskinean adierazten diren trafiko eta bide-segurtasuneko araudiaren ezagutzari buruzko azterketa teorikoa egingo da.

Gehienez 10 puntu emango dira. Gainditzeko gutxienez 5 puntu lortu beharko dira.

– Seigarren ariketa: Azterketa praktikoa. Derrigorrezkoa eta baztertzaillea.

Gehienez 30 minututan, I. eranskinean adierazten diren gaiekin lotuta, lana betetzean sor daitezkeen egoerekin lotuta egongo den Epaimahaiak proposatutako azterketa idatzi praktikoa egingo da.

Gehienez 10 puntu emango dira. Gainditzeko gutxienez 5 puntu lortu beharko dira.

8. Lehiaketa.

Oposizio-fasea gainditzen duten izangaiek lehiaketa-fasean hartuko dute parte. Hautagai bakoitzak gehienez 12 puntu lortu ahal izango ditu fase honetan. Epaimahaiak honako merezimenduak baloratuko ditu, beti ere, eskaeran hala alegatu eta behar bezala egiaztatu baldin badira.

– Udaltzain-agente gisa Herri Administrazioan eskainitako zerbitzuak, 0,5 puntu zerbitzu-hil bakoitzeko, 6 puntu gehienez.

Egindako zerbitzuak baloratzeko baremoa lanaldi osoan egindako zerbitzuak erreferentziazat hartuta ezartzen da. %50erainoko lanaldi murrizketak %100ean egindako lanaldi gisa zenbatuko dira. Egindako zerbitzuak egiaztatzekeo ziurtagiriak ez dira baloratuko, baldin eta ez badute adierazten zer lanaldi-erregimenetan egin diren eta, hala badagokio, lanaldia zer ehunekotan murriztu den.

Debako Udaletik kanpo egindako zerbitzuak egiaztatzekeo, zerbitzu horiek eman diren administrazioaren ziurtagiriak aurkeztuko dira. Ziurtagiri horietan zehaztu beharko da eginkizunak zer plazatan bete diren eta zerbitzu-harremanak zenbat iraun duen. Debako Udalean eskainitako zerbitzuak ez dira dokumentu bidez egiaztatu beharrik izango, baina eskabidean alegatu behar dira.

– Sorospen, babes zibil, hiri-segurtasun edo Udaltzain-agenteen funtzio propioekin erlazio zuzena duten ikastaro ofizialak. Gehienez 2 puntu.

– 0,25 puntu, 12 ordu arteko iraupena izan duen ikastaro bakoitzeko,

– 0,50 puntu, 13 eta 45 ordu bitarteko iraupena izan duen ikastaro bakoitzeko.

– Puntu 1, 46 ordu edo gehiago iraun dituen ikastaro bakoitzeko.

– Prestakuntza: Iraupenaren eta edukiaren arabera, Udaltzain-agenteen funtzio propioekin lotura duten ikasketak, tituluak edo diploma ofizialak baloratuko dira honako modu honetan: 0,50 titulu bakoitzeko; espezialitate bakoitzeko titulu bakar bat baloratuko da, eta gehienez 2 puntu lortu arte.

ción con los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas (*Boletín Oficial del País Vasco* 15-11-2010). Se podrá acreditar hasta la fecha de realización de la prueba de euskera.

– Cuarto ejercicio: Prueba teórica. Obligatoria y eliminatoria.

Consistente en la realización, en un tiempo máximo de 30 minutos, de una prueba sobre conocimiento de las Ordenanzas Municipales que se relacionan en el anexo I.

Se valorará sobre un máximo de 10 puntos. Debiéndose obtener un mínimo de 5 puntos para superarlo.

– Quinto ejercicio: Prueba teórica. Obligatoria y eliminatoria.

Consistente en la realización, en un tiempo máximo de 30 minutos, de una prueba teórica sobre conocimiento de las normas de tráfico y seguridad vial que se relacionan en el anexo I.

Se valorará sobre un máximo de 10 puntos. Debiéndose obtener un mínimo de 5 puntos para superarlo.

– Sexto ejercicio: Prueba práctica. Obligatoria y eliminatoria.

Consistente en resolver, en el plazo máximo de 30 minutos, una prueba escrita de carácter práctico propuesta por el Tribunal que guardará relación con el temario relacionado en el anexo I y las situaciones que pueden plantearse en el desempeño del puesto de trabajo.

Se valorará sobre un máximo de 10 puntos. Debiéndose obtener un mínimo de 5 puntos para superarlo.

8. Concurso.

Los/las aspirantes que superen la fase de oposición accederán a la fase de concurso. Cada candidato/a podrá obtener una puntuación máxima de 12 puntos en esta fase. El Tribunal valorará los siguientes méritos siempre que hayan sido alegados en la instancia y resulten suficientemente acreditados:

– Servicios prestados en la Administración Pública como agente de la Policía Local: 0,5 puntos por mes de servicios, hasta un máximo de 6 puntos.

El baremo para valorar los servicios prestados se establece con referencia a servicios prestados en jornada completa de trabajo. Las reducciones de jornada hasta el 50% se computarán como jornadas realizadas al 100%. No se valorarán los certificados acreditativos de los servicios prestados que no señalen el régimen de jornada en el que se han prestado y el porcentaje de la reducción de jornada, en su caso.

La acreditación de los servicios prestados en una Administración diferente al Ayuntamiento de Deba se realizará mediante certificaciones de la Administración en la que se hayan prestado, especificando las plazas en las que se han desempeñado las funciones, así como la duración de la relación de servicios. Los servicios prestados en el Ayuntamiento de Deba no será preciso acreditarlos documentalmente pero si alegarlos en la instancia.

– Curso oficial sobre socorrismo, protección civil, Seguridad ciudadana, o que tenga relación directa con las funciones propias de Agente de la policía Local. Hasta un máximo de 2 puntos.

– 0,25 puntos por cada curso duración hasta 12 horas.

– 0,50 puntos por cada curso duración entre 13 y 45 horas.

– 1 punto por cada curso duración de 46 horas o más.

– Formación: Se valorarán estudios, títulos o diplomas oficiales que guarden relación con las funciones propias de Agente de la policía Local, en función de su duración y contenido, valorándose: 0,50 puntos por cada título, valorándose únicamente un título por especialidad, hasta un máximo de 2 puntos.

– Euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea erukitzea, 2 puntu (titulazio ofiziala aurkeztu beharko da).

9. *Azken kalifikazioa.*

1. Oposizio-lehiaketaren azken kalifikazioak izangai bakoitzaren lehen ordena erabakiko du.

2. Hautapen-prozedurako probak eta lehiaketako atalak baloratu eta gero, Epaimahaiak izangaien sailkapen-ordena osatuko du, puntuazio altuenetik baxuenera.

Puntu-berdinketarik egonez gero, irizpide hauei jarraituko zaie, ezarritako lehen ordenaren arabera:

- a) Puntuazio altuena azterketa fisikoan.
- b) Puntuazio altuena azterketa teorikoen emaitzen batuketan.
- c) Puntuazio altuena azterketa praktikotan.
- d) Puntuazio altuena merezimendu-fasean.

3. Hautapen-prozesuaren kalifikazioa amaiturik, Epaimahaiak hautatako izangaien zerrenda egingo du. Zerrenda horretan hautapen-prozesua gainditu duten izangaiak azalduko dira. Hautapen-prozesua gainditzeko duten izangai guztiek osatuko dute prozesu honen bidez sortutako lan-poltsa.

Kalifikazio Epaimahaiak Udalaren Iragarki Oholean eta web orrian argitaratuko ditu 2. eta 3. zenbakietan aurreikusitako zerrendak eta Alkatetzara bidaliko ditu kontratazio-proposamenekin batera.

Epaimahaiak uste badu oposiziogileek azterketetan erakutsitako maila ez dela egokia, deialdia hutsik deklaratu dezake.

10. *Datu pertsonalen babesa.*

Hautapen-prozesuan jaso diren datu pertsonalak tratatzeko, datu pertsonalen babesari buruz indarrean dagoen legerian ezarritakoa beteko da, eta fitxategi automatizatu batean gordeko dira datu guztiak. Fitxategi horren bitartez, hutsik dagoen postua betetzeko hautapen-prozesuaren kudeaketa eta jarraipena egingo da, eta langileen aldi baterako beharrei erantzun zaie.

Izangaiek datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu eta aurka egiteko eskubidea dute. Horretarako, Debako Udalera jo behar da.

11. *Gorabeherak.*

Epaimahaiak eskumena du sor daitekeen edozein zalantza argitzeko eta lehiaketa-oposizioa behar den bezala garatzeko beharrezkoak diren akordioak hartzeko, betiere oinarri hauetan eta ezar daitekeen legeria osagarrian aurreikusten ez den alderdi orotan.

12. *Kontra egitea.*

Interesdunek deialdi honen, bere oinarrien eta horien ondoriozko administrazio-ekintzen aurka egin dezakete, betiere indarrean dagoen azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legean aurreikusten diren formak eta epeen barruan egiten badute.

Deba, 2016ko maiatzaren 3a.—Pedro Bengoetxea Loiola, alkatea. (3108)

– Conocimiento de euskera a nivel de PL 3 o equivalente, 2 puntos (deberá presentarse titulación oficial).

9. *Calificación final.*

1. La calificación final del concurso-oposición determinará el orden de prelación de cada aspirante.

2. Concluida la valoración de las pruebas y de la fase de méritos el Tribunal elaborará el orden de clasificación de los/as aspirantes conformado de mayor a menor puntuación.

Los empates en la puntuación se resolverán atendiendo a los siguientes criterios, por el orden de prioridad en que se establecen:

- a) Mayor puntuación en la prueba física.
- b) Mayor puntuación en la suma de pruebas teóricas.
- c) Mayor puntuación en la prueba práctica.
- d) Mayor puntuación en la fase de méritos.

3. Concluida la calificación de las pruebas del procedimiento selectivo, el Tribunal elaborará la relación de aspirantes seleccionados/as, integrada por los aspirantes que superen el proceso selectivo. Todos los aspirantes que superen el proceso selectivo integrarán la Bolsa de Trabajo que a través de este proceso se constituye.

El Tribunal Calificador publicará en el Tablón de Anuncios y en la página Web del Ayuntamiento las relaciones previstas en los números 2 y 3 y las elevará a la Alcaldía junto con la propuesta de contratación.

Si el Tribunal estimara que el nivel demostrado en las pruebas realizadas por los/as opositores/as no fuera el adecuado podrá declarar desierta la convocatoria.

10. *Protección de datos de carácter personal.*

Los datos personales recabados durante el proceso selectivo serán tratados conforme a lo establecido en la legislación vigente sobre protección de datos de carácter personal, formarán parte de un fichero automatizado cuyo objeto es la gestión y seguimiento del proceso selectivo con el que cubrir el puesto vacante así como atender a las necesidades temporales de personal.

Los/as candidatos/as tendrán el derecho de acceso, rectificación, cancelación y oposición, para lo que podrán dirigirse al Ayuntamiento de Deba.

11. *Incidencias.*

El Tribunal queda facultado para resolver toda duda que se presente y tomar los acuerdos necesarios para el buen orden y perfecto desarrollo del concurso-oposición en todo lo no previsto en estas Bases y en las leyes de aplicación adicional.

12. *Impugnación.*

La presente convocatoria, sus bases y cuantos actos administrativos se deriven de la misma podrán ser impugnadas por los/as interesados/as de la forma y plazos previstos en la vigente Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Deba, a 3 de mayo de 2016.—El alcalde, Pedro Bengoetxea Loiola. (3108)

ERANSKINA

GAI ZERRENDA OROKORRA

1. Espainiako Konstituzioa:
 - Atariko titulua.
 - I. tituluko II., IV. eta V. kapituluak. Eskubideak eta askatasunak. Oinarrizko askatasunen eta eskubideen bermeak. Eskubideak eta askatasunak kentzea.
2. 4/1992 Legea, uztailaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzkoa. II. titulua: I. eta II. kapituluak. III. titulua: I., IV., VI. eta VII. kapituluak. V. titulua.
3. Debako kaleak, mugikortasuna, interesguneak, eraikin garrantzitsuak, erakunde publikoak eta komunikabideak.

LAUGARREN ARIKETARAKO –UDAL ORDENANTZAK–
GAI ESPEZIFIKOAK

4. Ibiak arautzeko udal-ordenantza.
5. Ibilgailuak ez mugitzeko eta bide publikotik erretiratzeko eta, ondoren, ibilgailu horiek zaintzeko zerbitzua eskaintzea arautzen duen udal-ordenantza.
6. Udalerriko gune erregulatutan (TAO) ibilgailuak aparkatuz jabari publikoa okupatzeagatik prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskala.
7. Terrazak arautzen dituen udal-ordenantza.
8. Animaliak edukitzea eta babestea arautzen dituen udal-ordenantza.

BOSGARREN ARIKETARAKO –TRAFIKO ETA BIDE
SEGURTASUNeko ARAUAK– GAI ESPEZIFIKOAK

9. 6/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko testu bategina onartzen duena.
10. Martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua aplikatzeko eta garatzeko Zirkulazioko Araudi Orokorra onartzen duen azaroaren 21eko 1.428/03 Errege Dekretua.

ANEXO I

TEMARIO GENERAL

1. La Constitución Española:
 - Título preliminar.
 - Capítulos II, IV y V del Título I. Derechos y libertades. De las garantías de las libertades y derechos fundamentales. De la suspensión de los derechos y libertades.
2. Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco. Título II: Capítulo I y II. Título III: Capítulos I, IV, VI y VII. Título V.
3. Calles, movilidad, puntos de interés, edificios de importancia, organismos públicos, vías de comunicación de Deba.

TEMARIO ESPECÍFICO PARA EL CUARTO EJERCICIO
ORDENANZAS MUNICIPALES

4. Ordenanza municipal reguladora de vados.
5. Ordenanza municipal reguladora de la prestación del servicio de inmovilización y retirada de vehículos de la vía pública y subsiguiente custodia de los mismos.
6. Ordenanza fiscal reguladora de los precios públicos por ocupación del dominio público mediante el estacionamiento de vehículos en zonas reguladas de la villa (OTA).
7. Ordenanza municipal reguladora de veladores.
8. Ordenanza municipal reguladora de la tenencia y protección de animales.

TEMARIO ESPECÍFICO PARA EL QUINTO EJERCICIO-NORMAS DE
TRÁFICO Y SEGURIDAD VIAL

9. Real Decreto Legislativo 6/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial.
10. Real Decreto 1.428/03, de 21 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento General de Circulación para la aplicación y desarrollo del texto articulado de la Ley sobre tráfico, circulación de vehículos a motor y seguridad vial aprobado por Real Decreto Legislativo 339/1990 de 2 de marzo.

II. ERANSKINA- ANEXO II

LAN ESKAINTZA ESKARIA

Izen Abizenak/ Nombre y apellidos		NAN/ DNI
Jakinarazpenak jasotzeko helbidea/ Dirección a efectos de notificaciones		
Herria/ Población	Posta kod./ Cód. postal	Telefonoa/ Teléfono
Helbide elektronikoa/ e-mail:		

DEIALDIA/ CONVOCATORIA UDALTZAIN AGENTEEN LAN POLTSA
FROGAK EGITEKO HIZKUNTZA/ LENGUA EN QUE DESEA HACER LAS PRUEBAS Euskara Castellano

ESKARI HONEKIN BATERA DOAZEN AGIRIAK/ DOCUMENTACIÓN QUE SE ADJUNTA .NAN/DNI..... .IKASKETA AGIRIA/TITULO ACADEMICO..... .EUSKARAZKO 2. HE AGIRIA/TITULO PL2 EUSKARA..... B GIDABAIMENA/PERMISO DE CONDUCIR B EUSKARAZKO 3 edo 4 HE AGIRIA/TITULO PL 3 ó 4 EUSKARA UDALTZAIN AGENTE LAN ESPERIENTZIA /EXPERIENCIA LABORAL COMO AGENTE DE POLICÍA LOCAL IKASTAROAK ETA TITULUAK /CUSOS Y TÍTULOS
--

Behean sinatzen duenak eskaera honi dagozkion hautapen probetarako onartua izatea ESKATZEN DU, eta bertan azaltzen diren datuak egiazkoak direla eta oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituela ADIERAZTEN DU, eskatzen zaionean agiri bidez egiaztatuko dituela hitz ematen duelarik. Era berean, IVAPek hizkuntza eskakizunen erregistroko informazioa begiratu eta Debako Udalari emateko baimena ematen du.

El/la abajo firmante SOLICITA ser admitido a las pruebas selectivas a las que se refiere la presente instancia, DECLARANDO que son ciertos los datos consignados en ella y que reúne las condiciones exigidas en las Bases, comprometiéndose a acreditarlas fehacientemente en el momento en el que sean requeridas. Asimismo, autoriza al IVAP a que consulte la información del registro de perfiles lingüísticos y se la comunique al Ayuntamiento de Deba.

Deba,
Sinadura/ Firma

DEBAKO UDALEKO ALKATEARI

Inprimaki honetako datu pertsonalak erasandakoaren onespenez jasotzen dira, tratamendu automatizatu izango dute eta Debako Udaleko Informazio Sistemari sartuko dira. Datu horiek aukeratze-prozesuaren eta sor litezken lan-poltsen kudeaketarako soilik erabiliko dira, eta beste administrazio publikoei edo besteri laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (Datu Pertsonalak Babestekoan) aurreikusitakoa gertatzen denean. Horrela, identifikazio eta hizkuntz-eskakizunak egiaztatzeko datuak IVAPi jakinaraziko zaizkio, aipaturiko datuak egiaztatzeko eta hautatze-prozesuari dagokion proba ondo prestatu ahal izateko, Euskal Funtzio Publikoa arautzen duen uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 99.2 artikulua ezarritakoari jarraituz. Interesdunek datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango dute Lehiatila Bakarrean.

Los Datos Personales contenidos en el presente formulario son recogidos con el consentimiento del afectado y serán objeto de tratamiento automatizado e incorporados al Sistema de Información del Ayuntamiento de Deba. El tratamiento de dichos datos se restringirá exclusivamente a la gestión de este proceso selectivo y de las bolsas de trabajo que se pudieran establecer, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas o terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal. En este sentido, los datos de identificación y los relativos a la acreditación de perfiles lingüísticos serán objeto de cesión al IVAP para la verificación de los datos de acreditación alegados y la correcta preparación de la correspondiente prueba del proceso selectivo, en cumplimiento de lo establecido en el artículo 99.2 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca. Los interesados podrán ejercitar los derechos de acceso, cancelación, rectificación y oposición a través del Servicio de Ventanilla Única.